

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **Zerbitzua bide publikoan emateko kutzazain automatikoak jarririk jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzeagatik 2020an ordaindu beharreko tasari dagozkion erroldak jendaurrean jartzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita zerbitzua bide publikoan emateko kutzazain automatikoak jarririk jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzeagatik 2020an ordaindu beharreko tasari dagozkion erroldak, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea —, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa horiek ordaintzeko epea 2020ko irailaren 9tik azaroaren 9ra artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 25ean

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**